

Ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna **ZURIKETA BERDEAK HILTZEN GAITU**

Ekainak 5, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna, mugimendu ekologistaren aldarriak kalean entzunarazteko urteroko galdu ezinezko zita dugu. Larrialdi ekologikoaren gaineko kontzientzia gero eta hedatuago dago. Kontzientzia horri etekina atera eta jarduera ekozidak margo berdez estaltzen saiatzen direnak ere badira. Hori da *greenwashing*-a, zuriketa berdea.

Adibidez, %100 material birziklagarriekin eginiko salgaiak, lehengaiak ustiatuz eta zaborra besterik ez sortuz; "ekologiko" etiketadun elikagaiak, pestizidarik gabe, baina salmenta puntutik milaka kilometrotara ekoiztiak; *Safe the Planet* edo gisako mezuekin merkaturatzen direnak; erregai fosiletan oinarritzen diren transnaziionalen logo berdeak...

Instituzioetatik berdin. Europako Parlamentuak 2019ko azarora arte ez zuen larrialdi klimatikorik zegoenik aitortu. Gainera, benetako adierazpena baino, propaganda izan zen gehiago. Izan ere, EBren trantsizio politikak mito batean oinarrituta daude: ekonomiak hazten jarrai dezake energia kontsumoa eta ingurumen inpaktuak murrizten diren bitartean.

Zentzu berean, krisi garaiotan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zerbitzu publiko eta behar sozio-ekologikoak asetu eta trantsizio erreal bat burutu baino, AHTa, ubidearen handitzea, berriztagarria izango ez den hidrogenoaren korridorea, erraustegia, zentral eoliko onartezinak eta abar finantzatzeko Petronor, Iberdrola eta enparauentzat bideratu ditu europar funtsak, herritarrak zorpetu eta ama lurra kinka larrian jarritz.

Gipuzkoan klima larrialdia areagotzen duten arazo andana dugu eta borondate politiko eskas horiei heltzeko. Donostia eta landa eremuen arteko birziklapen desoreka onartezinak; turistifikazioa eta eremu babestuen artifizializazioa; erraustegia, metroa, eta orain surf-park eta birziklapen sarituaren zentzugabekeriak. Gipuzkoako basoen desagerpena, eta horrekin lotutako bioaniztasunaren galera, eukaliptoen erabilera, itsas-erreken kutsatzea, naturaren gehiegizko ustiapena, zabortegien mafia...

Finean, planeta mugatu batean aberastasun pilaketa mugagabearen kontraesan publikoa da zuriketa berdea. Gipuzkoako talde ekologistok nazioarteko egun honen ospakizunean agintari politiko, erakunde eta enpresen itxurakeria eta zuriketa berdea salatzen ditugu.

Kontzientzia ekologista eta mobilizazioa nahitaezkoak dira kapitalismo berdeari erantzun eta larrialdi klimatikoaren aurrean alternatibak gauzatzeko. Trantsizio ekologiko eta sozial baten aldeko norabidea argiztatu dezagun tokian tokitik mundu osora. Ez gaitzabela engaina! Zuriketa berderik ez!

Sinatzaileak: Larreko Mahaia, Greenpeace, Eguzki, Errausketaren Aurkako Mugimendua, Gurasos, Fridays For Future, Extinction Rebellion, Satorralaia, Naturkon, Antikapitalistak Euskal Herria, Ekologistak Martxan Gipuzkoa, Landarlan Ingurumen Elkarte, ELA, LAB, Steilas.